



## Ostalaritza zain

Nafarroako Gobernuak hartuko dituen erabakien esperoan dago / 8-9



### Txapela helburu

Binakako Finalerdia jokatuko dute gaur Martijak eta Ezkurdiak / 12

**Euskaraldiak euskaraz lasai aritzeko espazioei testa egiteko balio izan du** / 2-3

**Ziordin hondakin bereziak jasotzeko ekarpen gunea zabaldu du mankomunitateak** / 5

**Jonan eta Julen ikastera eta lanera ateratzen hasi dira. Azken bilkura abenduaren 11n** / 7

**Xabi Bandinik eta Alberto Isabak 'Gertutik' ikuskizuna mustuko dute bihar Altsasun** / 14

**Irurtzungo Udalak CO<sup>2</sup> isuriak murrizteko sei lan egin ditu 134.500 euroekin** / 9

**Txuspo Poyo artistak ikastetxe erlijiodunen "hondakinekin" artea egin du** / 15

# Euskararendako guneak sortzen

Edozein momentutan euskaraz hizketatzeko aukera segurtatzen duten tokiak arigune izendatu ditu Euskaraldiak. Hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa modu kolektiboan egiteko aukera eman dute

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Lehendabiziko Euskaraldiarekin gure artean belarriprest eta ahobizi txapak egin ziren ezagunak. Bigarren Euskaraldian arigunea zer den ikasi dugu: euskaraz lasai hitz egiteko espazioak. Establezimendu batean barrura begira izan daiteke arigunea, lantegiko langileen artekoa, esaterako. Edo kanpora begirako arigunea, dendaria bezeroekin, adibidez. Sakanan 119 entitatek eman zuten izena arigune gisa eta haien baitan guztira 371 arigune sortu ziren.

COVID-19 gaitzak eragindako pandemiarekin arigune batzuetako arduradunek ezin izan dute Euskaraldian parte hartu, esate baterako, tabernak itxita egon direlako. Baina hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketan parte hartzeko aukera izan dute bost arigunetako ordezkarien balorazioa jaso dugu.

**Lekukotzak**

Lorena Arangoa Zabaleta irurtzundarra Fruitis janari dendako arduradunak azaldu duenez,

"lau gaude lan egiten eta laurak ahobizi edo belarriprest izan gitezke. Horretara animatu gintuzten Euskaraldiko batzordekoek, eta baiezkoa eman genuen". Arangoak ahobizi txapa du soinean. Rol bera hartu du Nerea Vizuete Fernandez iturmendiarrak, Vizu ile apaindegiko nagusiak. Esan digunez, Euskaraldian arigune izatea "ideia ona iruditu zitzaidan. Zeren euskaraz asko-asko ez genuen hitz egiten, baina orain gero eta gehiago. Eta ile apaindegira eus-

karaz egiten duen jendea etortzen denez, esan nuen: zergatik ez?"

Gaizkane Andueza Razkinek Ttannta zentroa kudeatzen du eta osteopatia, par biomagnetikoa, sendatze energetikoa eta halakoak eskaintzen ditu han. Ahobizi da. Bere atxikimenduaren zergatia halaxe azaldu digu: "Euskaraldiarekin bat egin nuen zentroa euskaraz hitz egin daitekeen espazio bat delako. Ni euskalduna naiz. Eta, egia esan, horrek bulkatzen du euskaldun gehiago zentrorera erakartzeko".

Uharte Arakilgo Rural Kutxako bulegoa arigune zergatik bihurtu zen azaldu digu Iñaki Lazkano Rosak: "Sakanan gure euskara indartzen jarraitu behar dugu. Irañetatik hasi eta Etxarri Aranatzerraino da gure bulegoko eskualdea, ez bakarrik Uharte Arakil. Euskaraz hitz egiten duen jende asko dago eta gure betiko hizkera izan da, nirea eta beste lankideena hala izan da, lehendabizi, behintzat, euskaraz. Eta esan genuen Euskaraldia aprobetxatu beharra zegoela. Eta arigune gisa izena eman genuen, euskararen aldeko gure alea jartzeko".

## Korrikak 40 urte bete ditu

Lehendabiziko Korrika 1980ko azaroaren 29tik abenduaren 7ra egin zen, *Zuek ere esan bai euskarari* leloa zuen. Lekukoa eraman zuen lehena Jose Mari Satrustegi izan zen. Arbazuarrak berak proposatu zuen Korrikako mezua Rikardo Arregik alfabetatze lana babesteko eskatuz Euskaltzaindiari bidalitako gutuna izatea. Etxarrin ezbeharrak izan zen, Korrika pasa ondoren auto batek Javier Eseberri Arraras harrapatu zuen, abenduaren 5ean hil zen.

Irene Ginea Zufiaurre altsuarra Zangitu fanfarreko kidea da. Azaldu duenez, 15 bat kide dira. "Gehienak euskaldunak gara eta ez dakitenak, kasualitatez, ikasten ari dira. Beraz,

**top topa.shop**

abenduaren 9tik aurrera

Nafarroako tokiko merkatariorik plataforma berri hau eraiki dugu, gure produkturik hoberenak zure etxetik bertatik disfrutatu ahal izateko.

**Sartu Toptopan eta topatu Nafarroako top produktuak eta top dendak.**



Goian, Iñaki Lazkano eta Alicia Elizalde Uharte Arakilgo Rural Kutxakoak, behean, Lorena Arangoa eta David Ramirez Fruitis janari dendakoak, ezkerrean, Nerea Vizuete Vizu ile apaindegikoa eta Gaizkane Andueza Ttanta zentrokoa.

modu batera edo bestera, denak euskarari lotuta gaude. Euskaraldian parte hartzea beharrezkoa ikusi genuen eta arigunea sortzea erabaki genuen gure artean euskaraz aritzeko. Baina fanfarrea kaleko taldea denez, jendeak gerturatu nahi badu eta euskaraz hitz egin, gu prest. Nik ahobizi txapa dut, eta gehienak hala dute. Ikasten daudenak berraprest dira".

Zergatiaraz galdetuta, Lazkanok esan duenez, "gure asmoa zen ez bakarrik gure artean euskaraz hitz egitea, baizik eta etortzen den jendeari, lehendabizi behintzat, harrera euskaraz egitea. Eta zerbait baldin badaki segitzen saiatu, nahiz eta geldoago hitz egin-edo, baina euskarari pisu bat eman". Vizuetek aitortu digunez, euskara gehiago hitz egiteko sortu zuen berean arigunea. Gauza bera esan du Arangoak, asmoa gauzatu dela gaineratuz. Anduezak, berriz, "zentroa euskararen erabilera bultzatzeko erabili" nahi izan du Euskaraldian.

#### Pozik

Lakuntzarrak azaldu du lanean euskaldunekin euskaraz hitz egiten duela, baina arigune izateak "lagundu dit euskaldun berriekin, ikasten ari direnekin, euskaraz gehiago hitz egiten; pixka bat haiei laguntzeko ere". Lazkanok esan duenez, haiena esperientzia "polita" izan da, "benetan. Gustura gaude, zeren etortzen den jendeari lehenbi-

zi euskaraz hitz egiten diogu, eta dakienak segitzen du. Ongi dago hiru lanpostuetan euskara lehen hitza delako". Altsuarrak ere esperientziaren "ederra" azpimarratu du: "ez gaude denen artean euskaraz hitz egitera ohituta. Batzuen artean bai, baina besteekin ez hainbeste eta ohitura horiek aldatzeko ongi etorri zaigu; polita izan da".

Iturmendiarrak nahiko esperientzia ona izan dela esan du. "Nahiko kontentu nago. Askok ez dute hitz egiten, baina, orain, Euskaraldiarekin animatu dira. Jendeak euskara gehiago hitz egin duela nabaritu da. Jendeak txapa ikustean gehiago hitz egiten du". Irurtzundarrak gaineratu duenez, "jendea pila animatu da. Nik betidanik ezaugarzen dudana jendea, inoiz ez ditut euskaraz hitz egiten aditu, eta orain entzuten ari naiz. Batzuek euskara zekitenik ere ez nekien. Egia esan, oso pozik. Txapen eta mostradorean dugun ariguneko logotipoaren eragina nabari da, bai".

Establezimenduek, besteak beste, hornitzaileekin eta administrazioarekin harremanak izaten dituzte. Arangoak ziurtatu duenez, "horretan ez dugu inoiz problemarik izan. Horretan aldaketa handirik ez dugu ikusi". Vizuetek aitortu du berarengana joaten diren gehienak erdaldunak direla. Anduezak, azkenik, azaldu du saiatzen dela beti euskaraz dakien jendea bilatzen.



Zangitu fanfarreko kideak.

#### Aldaketarako tresna

Euskaraldia hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa da eta elkarrizketatuek balio hori aitortu diote. Lazkano: "denoi pixka bat gogorarazteko, Euskaraldia sarriago egitea ona izanen litzateke. Jakin non gauden eta zer garen. Gure hizkuntza ez ahaztea eta zabaltzea. Nik uste komenigarria dela". Vizuetek azaldu duenez, "ohiturak ditugu, eta gaztelaniaz hitz egitera ohitzen bazara... Pixka bat aldatu behar dugu. Pasa izan zait jendeak esatea: "ez genekien hainbeste euskara dakizula". Niretako esperientzia ona izan da".

Anduezak argitu duenez, berari "batez ere euskara ikasten ari direnekin aritzeko balio izan dit. Guk kontzientzia hartzeko, beraie ere lagundu beharko diegula, gu garela beraie euskaraz hitz egin beharko diegunak". Arangoa etorkizunera begira

jarri da: "egun hauek pasatuta jarraitzen badugu, bai, zerbaiterako balio izan du. Bestela, ez. Behintzat orain arte hitz egiten ez zutenak, behin sartuta, hemendik aurrera gure lehenengo eskaintza euskara izanen da. Hori ere bada irabazitakoa". Anduezak bidea garbi du: "orain arte bezala jarraitzen saiatuko naiz, euskaraz hitz egiten. Eta, batez ere, hizkuntza ikasten ari direnekin euskaraz hitz egiteko ohitura hartzen".

Euskaraldia bukatuta Vizuetek "gero eta gehiago euskaraz hitz egiten" saiatuko da. "Gainera, nire kuadrillan gero eta gehiagok hitz egiten dugu. Ea bide horretatik jarraitzen dugun". Lazkanok ziurtatu duenez, "jarrera beraiekin segituko dugu. Hor geldituko dira ariguneko ikurrak eta gure jarrera azaldutakoa izanen da. Ea denon artean Euskaral-

ditik gauza onak ateratzen ditugun". Gineak egitekoa zein den zehaztu du: "ohitura berri hauek mantentzen saiatzea izanen da erronka. Norbanakoaren gauza da. Euskaraldian parte hartu izanak asmo hori badagoela erakusten du".

Arigune izan diren denda, bulego, zerbitzu edota kultur entitateen lekukotzak izan dira horiek. Familia, kuadrilla, elkartea, lantokia, auzoa, herria, Sakana arigune izateko pausoak ematen hasi beharra dago. Gaurtik, Euskaraldia bukatzen den egun honetatik bertatik. Belarriprest eta ahobizi rolak jokatzen segitu beharra dago. 15 egunez posible dela erakutsi dugu. Euskaldun asko gara ibarrean, baina euskara gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin hitz egin nahi dugu bihartik aurrera, urteko 365 egunetan.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Espainieraz ez; euskaraz, eskubidez

Gaur amaitzen da Euskaraldia, hau da, euskaldunen artean euskaraz hitz egiteko ohitura indartzeko ariketa. Bada premia! Izan ere, Soziolinguistika Klusterraren datuen arabera, hitz egiteko tenorean eskas samar gabiltza, eta Sakanan antzera. Joxean Artzeren esaldi ezaguna gogoratu, "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik". Hori horrela, Ikas prozesuan ari denak meritu bikoitza du, ikasteagatik eta hitz egiten ahalegintzeagatik. Alabaina, gure herrietan, makina bat aldiz entzuten dira *euskaldunak*, maila ona izan arren, *espainieraz* haien artean. Ohituragatik, erosokeriagatik, utzikeriagatik, euskal identitate eskasagatik, lotsagatik, auskalo! Hortaz, Euskaraldiaren saiakerak emaitza ona izan dezala!

Nolanahi ere, jokabide pertsonalak oso garrantzitsuak izan arren, berebiziko garrantzia dute jarduketara edo zerbitzu publikoak eskaintzen duten eragileek, publikoek nahiz pribatuek. Aipatzekoak dira administrazio publikoak, alderdi politikoak, merkataritza guneak, zerbitzu enpresak, kultur eta kirol elkarteak, eta abar. Horiak denek ezinbesteko eginkizuna dute euskararen normalizazioaren bidean, hain zuzen ere, kulturaren eta identitatearen erreferente direlako. Baina, oro har, haien jarduketara ez da oso txukuna. Nafarroako Gobernuaren leihatiletan arruntena da "no hablo vasco, en español" esaldia. Euskaltasuna ikur duten saltokietan, kutxetan eta abarretan, Nafarroako Gobernuaren antzera. Politikari abertzale euskaldunak espainieraz barra-barra, kataluniarrak ez bezala. Oro har, ez zaie antzematen euskarazko zerbitzua eskaintzeko benetako plangintzarik, marketina egiteko ez bada. "No hablo vasco, en español", bost hitzetan ukatzen diote euskaldunari legez aitortua duen eskubidea. Ez por favor; ezta mesedez ere! Zapaltzen dute pertsona bezala, bere kultura eta bere nortasuna. Bortizkeria sinbolikoa eta estrukturala.

Euskararen Legea 1986ko abenduaren onartu zenetik hogeita hamabost urte betetzear direnean, oraindik horrela. Alabaina, Nafarroako Gobernuaren 2021 urteko aurrekontu aurrerakoiak onartuko direla eta, tokitxo bat izanen ahal zuen euskararen aferak negoziatioetan. Hori horrela, aipatutako esaldi gogaikarri horri erantzuteko "Espainieraz ez; euskaraz, eskubidez" erantzuterik izanen dugu.

### Oporretara goaz!

Datorren astean ez da GUAIXE astekaririk egongo, hurrengo Abenduaren 18an izanen da.

Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Zaintza onak familian

#### SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Altsasu, Etxarri Aranatz eta Irurtzungo eskualdeetako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateetako Prebentzio eta familia programak egindako egutegia aurkezten dizuegu oraingoan.

Sentsibilizazio kanpaina izanik, egutegi formatuarekin zuzenduko gara oraingoan hiru eskualdeetako familiengana. Hain zuzen, adin jakin batzuetako haurrak eta gaztetxoak diren seme-alabak dituzten familiengana.

Prebentzioa eta familia programetarik urteak daramatzagu familiek in lanean, beraien seme-alaben heziketaren inguruan eta baita guraso bezala hain garrantzitsua den osasun emozionala landuz. Kanpaina honekin, familian osasun emozionala garatzeko

mesedegarriak diren alderdiak transmititzea izan dugu helburuetariko bat.

Sentsibilizazio kanpainei esker, ikaskuntza sakonago batera garamatzaten galderak egin ditzakegu. Horregatik egutegian agertzen diren ideietatik batzuk, zuzenean galdera moduan jarri ditugu.

Egutegiak markatzen dituen hamabi orrietan –hilabete bakoitzeko orri bat–, hamabi ideia luzatu nahi izan ditugu. Hausnarketarako tresna da egutegi hau. Norberak ideiak irakurtzerakoan, hausnarketa propioa egitera bultzatzen gaituen tresna hain zuzen ere.

Bestalde, norberaren ongizatera iristeko, egin beharrekoea edo gure partetik jarri beharrekoea ere ikustarazi nahi izan dugu. Gauzak ez baitira bat-batean edo zoriaren

eraginez gertatzen, bakoitzaren esku hartzea dago gauza guztietan, eta horretaz kontzientzia hartzea ezinbestekoa dela azpimarratu nahi izan dugu. Ideia hau, "proaktibitate"-rena alegia, gaur egungo egoeran inoiz baino gehiago behar dugun ideia da. Beti garrantzitsua bada ere, momentu larrietan areagotzen den gauza da: gauzak nire kabuz gertatzea, bakoitzak bere ongizate emozionala sortzea.

Helburua beti ahalik eta hoberen egotea da. Kanpo eraginak daudela jakinda, norberaren esku dagoen guztia egitean, geure ongizate emozionalaren sortzaile bihurtzen gara. Familia guztiarentzako baliagarriak diren ideiak agertuko dira, gurasoentzako eta baita seme-alabentzako ere.

Banaketa posta bidez egingo dugu. Beraz, etxetara egutegia iritsiko zaie zonaldeko familia askori.



## OBJEKTIBOTIK

### Altzaina, Altsasuko zaina

Altsasuko herria pertsonen zaindua dagoela ezin dugu ukatu, baina ibai batek zaintzen omen du ere iparraldetik datozen uren bidez Altsasuren bihotza, Altzainak.

Nahasketa honek izen poetiko bat eman dio ibaiari, baina ibaiek gu zaindu beharrez, zain ditzagun guk. Gure lurraldearen zainak dira, bizitza dakartenak eta ezinbestekoak direnak inguruko naturarentzat.



UTZITAKOIA

# guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
Ainhora Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

## Bizikidetzaren planean parte hartzeko aukera zabalik

Iritzia lortia kultur gunean edo [www.altsasu.eus](http://www.altsasu.eus)-en bidez eman daiteke, ibeltzaren 6ra arte

### ALTSASU

Altsasuko Udala Bizikidetzaren Plan bat prestatzen ari da. Bizikidetzaren eta Historia Memoria Batzordeko buru Jokin Zelaia Oiarbidek azaldu duenez, "helburua da herriko gizarte harremanak nolakoak diren hobeto ulertzea eta, era berean, alderdi positiboak eta hobetu ditzakegunak identifikatzea. Herriko bizikidetzaren arloko premiei buruzko begirada partekatatu bat eraiki nahi dugu". Horretarako, udalak herriko politika, gizarte eta hezkuntza eragileekin partaidetza espazioak eta prozesuak ireki nahi ditu, "hausnarketa ordenatua eta parte hartzailea izan dadin".

Diagnostikoa egiteko Nafarroako Gobernuaren 8.000 euroko dirulaguntza jaso zuen udalak eta haren bidez Arete Arctiva kontsultorea aholkularitza kontratatu zuen. Irailaren 24tik daude lanean. Haien lehen egitekoa hainbat arlotako 20 herritar elkarrizketatzea izan da. "Bizikidetzaren egoerari buruz dauden ikuspegi desberdinak jaso nahi izan dituzte, ahalik eta aniztasun handiena hartzen saiatuz, horiek guztiak behar bezala ordezkatuta gera daitezten". Bestalde, aurrera astean bi hizketa talde bilera egin zituzten. Diagnostikoa egiterakoan horien guztien osagarri da herritarrei zabalduko parte hartze prozesua. Zelaiak azaldu duenez, "altsasuarren iradokizunak ezagutu nahi ditu, gure herriko gizarte harremanak hobeto ulertzeko eta alderdi positiboak zein hobetu ditzakegunak identifikatzeko". Iortia kultur gunean kuxaren bidez edo udalaren webgunearen bidez galdetegi erantzuteko gonbidapena luzatu du Zelaiak.

Behin diagnostia despedituta, Altsasuko Udalak foru administrazioaren dirulaguntza jasoko balu, bigarren faseari ekinen lioke, bizikidetzaren plana egiteari.



Ziordiko elizaren atzeko aldean zabaldu dute hondakinendako ekarpen gune berria. SAKANAKO MANKOMUNITATEA

## Hondakin bereziendako ekarpen gunea zabalik

Elizaren atzean dago. Han hondakinak bota nahi dituzten ziordiarrek giltza udaletxean eskatu behar dute, 948 467 548 telefonora hots eginez, astearte eta ostegunetan 10:00etatik 12:00etara

### ZIORDIA

Sakanako Mankomunitateak Ziordiko elizaren atzeko aldean hondakinak jasotzeko ekarpen gunea jarri du. Handik pasatzen denak hainbat edukiontzi ikusiko ditu. Haien bidez ziordiarrek etxebizitzatan sortzen diren hondakin bereziak hobe eta errazago kudeatzeko. Ekarpenean honakoak utzi ditzakete

ziordiarrek: inausketak (adaxkak, makilak eta ezpel hesi ebakinak), obra txikiko hondakinak (adreiluak, harriak, porlana eta zeramika), egurra (paleak, hautsitako altzariak, markoak eta zoruak), tresna elektriko txikiak, tonerak, pilak eta argiteria (LED, kontsumo baxuko bonbilak eta fluoreszenteak). Ekarpenean ez dira industria hon-

dakinak onartzen eta eraman daitezkeen obra txikiko hondakinaren kantitatea mugatua dago, gehienez 2 m<sup>3</sup> arte.

Hondakinak jasotzeko Ekarpene Gune Sarea osatzeko pausoa eman du Mank ek Ziordikoa zabalduz. Aurretik Etxarri Aranatzeko biziklapen etxola jarrita zuen. Bestalde, ibarreko erakundeak hondakinak egokitzeko Garbi-

gune Sarea ere badu. Mank-ek lehenik Arbizuko tratamendu plantan hondakin bereziak jasotzeko aukera eman zuen. Eta lastailaren 20az geroztik, Altsasun bigarren Garbigune finkoa zabaldu zuen. Altsasuko Udalak duen biltegiaren ondoan dago. Altsasuarrek han makina bat hondakin botatzen zituzten eta haiek egoki kudeatzeko bitartekoa da Garbigune berria. Bai Arbizuko baita Altsasuko Otai-guneak astegunetan 09:00etatik 14:30era daude zabalik. Gainera, Garbigune Mugikorra herriz herri ibiltzen da astez.

### Tamaina handikoak

Altzariak, sofak, koltxoiak... halakoak askotan Sakanako kalean botata ikusten dira. Ohitura txar bat da. Emausko Trapuketariak atez ateko bilketa egiten dute. Horretarako, 948 46 48 67 telefonora besterik ez da hots egin behar. Mank ek zabaldu berri dituen zerbitzuekin ere arazo horri erantzun nahi dio, sumatu baitu azken aldian gero eta gehiago uzten direla tamaina handiko hondakinak kalean botata.

**TAMAINA HANDIKOAK ETXETIK JASOTZEKO 948 464 867 TELEFONORA HOTS EGIN DAITEKE**

## Arakilgo landetxe eta apartamentuetan %30eko deskontua

COVID 19 gaitzak turismo arloan eragin dako krisia Arakilen ere sumatu dute. Horren jakitun, Arakilgo Udalak ibarreko landetxe eta turismo apartamentuak laguntzeko kanpaina martxan jarri du, haiekin elkarlanean. Abendutik martxoaren bukarara arte Arakilgo landetxe edo turismo apartamenturen batean ostalua hartzen duen bezeroak %30eko deskontua izanen du.

Eskaintzarekin honakoek egin dute bat: Urritzolako Txastarena (651 596 190), Egiarretako Zarranz etxea 626 268 547), Etxarrengo Juanserena (609 225 653), Satrustegiko Zubiarena (646 926 486) eta Hiri berriko Martinberika (680 532 232).

## Herriko dendetan kontsumitzeko bonuak atera ditu udalak

Udaletxeko bulegoan eskuratu daitezke 15 eta 10 euroko bonuak. Abenduaren 31ra arte erabili daitezke

### ETXARRI ARANATZ

Herriko saltokietako kontsumoa sustatzeko ekimena martxan jarri du Etxarri Aranazko Udalak. Horretarako, Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarrearen ezinbesteko laguntza izan du. *Etxarrin bizi! Etxarrin erosi!* lelopean bi kontsumo bonu atera ditu Etxarri Aranazko Udalak. Lehenengo bonua 15 eurokoa da. Herritarrek 8 eurotan erosiko dute, eta udalak 7 euro finantzatuko ditu. Bonu hori ekimenean atxikitako ondoko saltokietan erabili daitezke: ile apaindegi eta



Etxarriarrak plazan. ARTXIBOA

estetika zentroak, akademiak, arropa dendak, fisioterapeutak, masajistak eta altzari dendak.

Bigarren bonua 10 eurokoa da. Kasu horretan, herritarrek 6 euro ordainduko ditu eta Etxarri Aranazko Udalak 4 euro finantzatuko ditu. Bonu hori ekimenean atxikitako ondoko dendetan erabili daitezke: liburu dendak, jatetxeak, tabernak, ostatuak, elikadura dendak, okindegiak edo botikak.

*Etxarrin bizi! Etxarrin erosi!* izena duten kontsumo bonuak Etxarri Aranazko udaletxeko bulegoan eros daitezke, abenduaren 31ra arte. Horretarako jendaurreko ordutegian joan beharra dago, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara, eta bonuak erabiltzeko epea egun horretan, abenduaren 31n, despedituko da.

# Etxeraino zerbitzuen eta establezimenduen gida

Guaixe fundazioa Sakanako Gida 8.500 etxebizitzetan banatzen hasi da. Paperezko bertsioak bere parekoa du Interneten. Sakanako zerbitzu eta establezimenduen eskaintza zabala eta haiekin harremanetan jartzeko modua dago bietan

## SAKANA

Sakanako Gida, ibarreko dendek, zerbitzuen, enpresen eta autonomoen informazio osatua eta eguneratua du. Eta horixe jasoko dute sakandar guztiek beraien etxeetan hurrengo egunetan. Guaixe fundazioaren ekimenez argitaratu da gida komertzialaren zarpigarren edizioa. Hura zabaltzen duenak egunerokoan baliagarria zaion informazio praktikoa opatuko du, esaterako, osasun etxe, udal edo bestelako erakundeen telefonoak. Sakanako Gidaren aurtengo berritasuna hainbat herritako mapak dira, establezimenduak kokatzen lagunduko dutenak.



Zerbitzu eta establezimenduen berri ematen duen Sakanako Gida buzoietan.

Guaixe fundazioaren argitalpenak Sakanako merkataritza eta zerbitzu eskaintza zabalaren informazio osatua eta eguneratua. Sakanako Gida ibarraren tokiko ekonomiaren oinarri diren zerbitzuek eta establezimenduek osatzen dute. Guztien artean makina bat esparru hartzen dituzte, eskaintza zabala osatuz. Haiek dira beraien eguneroko eskaintzarekin sakandarrak kalera atera eta bisitariak erakartzen dituztenak, eta Sakanako herriei bizia ematen dietenak. Gure establezimenduak eta zerbitzuak, urrutia joan gabe, hemen bertan, Sakanan.

## Bi bertsio

Etxeetara Sakanako Gidaren paperezko bertsioa iritsiko da. Baina uneoro eskuragarri dago Guaixe fundazioaren zerbitzua, online bertsioa baitago: [www.guaixe.eus/gida/](http://www.guaixe.eus/gida/). Interneteko gidan paperezko bertsioan dauden establezimendu eta zerbitzuei buruzko informazio bera dago. Batean eta bestean bilaketak egiteko sailkako eta azpisailkako antolaketa dago. Gainera, Interneten establezimendu ba-

koitzak bere orria du eta han helbidea, telefonoa, e-posta eta haren web orriaren berri dago. Mapa batean haren kokapenaren berri ematen da ere. Interneteko webgunea Sakanarako eta mundurako erakusleiko bat bihurtzen da. Aurki erabat berrituko dena, Tokikom osatzen dugun Euskal Herriko hedabideekin batera egindako lanaren ondorioz.

Tokiko merkataritza eta zerbitzuak Sakanako ekonomiaren oinarri garrantzitsua dira, ibarrean, herrietan aberastasuna eta lanpostuak sortzen dituenak. Haietan erosiz edo haietan zerbitzuak kontratatuz, *Sakanan bizi eta lan* leloa gauzatzen ari gara. Hori errazago egiteko, gainera, BelexeGuaixe txartela dago. 2012an sortu zen eta fundazioaren babesle diren 1.400 sakandarrei ibarreko 90 bat establezimenduetan abantailak eskaintzen dizkie.

## Harremanetarako

Sakanako Gidaren hurrengo edizioan edo orain Interneteko bertsioan sartzeko: 661 523 245 telefonora hots egin edo [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus) e-postara idatzi.

**OHI DENA  
EDATEA  
GEHIEGI  
IZAN DAITEKE**

**OHI DENA OSPATZEA  
BAITA ERE**

**EGIN DITZAGUN  
BESTELAKO OSPAKIZUNAK**

GARAI ZAIL HONETAN



**ZAINDU ZAITEZ, ZAINDU GAITZAZU**



# Azken kontzentrazioa abenduaren 11n

Altsasuko auzia salatu eta presoan askatasuna aldarrikatzeko bilkura gaur, ohi bezala, 20:00etan, udaletxe parean izanen da. Abenduaren 11n kontzentrazioaz aparte, bideo emanaldia, kantaldia eta horma irudien ezabatzea aurreikusi dute

## ALTSASU

Altsasuko auziagatik kartzelan dauden Jonan eta Julen herenegun hasi ziren espetxetik ateratzen. Hori bai, lanera eta ikastera joateko, ondoren, kartzelara bueltatzen dira, lotara. Eta asteburuetan preso egon beharko dute Zaballan. Bigarren graduari preso segitzen baitute biek.

Horiek horrela, lau urte luzeren ondoren Altsasuko auzia salatzeko eta presoan askatasuna aldarrikatzeko kontzentrazioak egiteari utziko diote Altsasu Gurasoak taldeak eta Altsasukoak Aske herri plataformak. Gaurkoa azken aurreko kontzentrazioa izanen da. 2016ko azaroaren 14an



Amaia Amilibia informazioa ematen aurreko elkarretaratze batean.

atxilotu zituztenetik abenduaren 20ra arte egunero egin ziren kontzentrazioak udaletxe parean, 37 egun segidan. Eta 2016ko abenduaren 23tik ostiralero egin dira kontzentrazioak, hasieran 19:00etan eta ondoren 20:00etan. Pandemiagatik aurtengo martxoaren 13tik maiatzaren 29ra arte ez zen bilkurarik egin. Beraz, abenduaren 11ko kontzentrazioarekin ostiraletako 196 elkarretaratze izanen dira, guztiak ere auzia salatzeko eta presoan askatasuna aldarrikatzeko.

Eta bukaera emateko ohiko ordu erdiko kontzentrazioa egingen da. Udaletxe parean bideo proiektzioa egingen dute gurasoek eta plataformak. Eta ostiraletako kontzentrazioei akabera emateko talde argazkia egingen dute. Hangoak despedituta, ekitaldiak Foru plazan izanen dute segida. Gauari Flores ahizpek doinua jarriko diote. Eta beraiek kantuan dauden bitartean kioskoaren ondoko etxean dauden Adur, Jokin eta Oihanen irudiak pinturaz estaliko dira. Margolari lan horretan altsasuarrak parte hartzea nahi dute bai gurasoek bai plataformako kideek.

## Auzipetuen egoera

Jonanek, Julenek, Aratzek eta Iñakik zigorpean 948 egun egin dituzte. Azken biak abenduaren 20tik 3. graduari daude, Altsasun, kontrol telematikoarekin. Aratzek 2022ko garagarrean bukatuko du zigorra betetzeaz eta Iñakik 2021eko lastailean.

Adurrek, Jokinek eta Oihanek, berriz, 1.482 egun egin dituzte zigorpean. Hiruak garilaren 4tik 3. graduari daude. Pandemiagatik irailaren 8an eskumuturreko telematikoa jarri zieten eta ordutik herrian daude. Zigorra betetzeaz 2024 urtearen erdialdean bukatuko dute.

Ainarak urte eta erdiko espetxe zigorra jaso zuen, kartzela ez zuen zapatu baina hainbat kontrol neurri bete behar izan zituen. Zigorra etenda du eta 2024an baliorik gabe geldituko da. Bestalde, auzipetutako adingabeokari urte bateko tutoretzapeko askatasun zigorra ezarri zioten. Herrian dago eta zigorra betetzez ilbeltzean bukatuko du.

Bestalde, ETBk abenduaren 9an emanen du Altsasu telesailen lehen atala. Mustutzea, igandean, 13:00etan, Iortian.

## ALKOHOLA KONTSUMITZEAN COVID-19AREN PREBENTZIOAN LASAITZEN GARA

### ALKOHOLAK NEURRI GUTXIAGO HARTZEA ERAGIN DAKIGUKE

▣ 200 ml: SEGURASUN-DISTANTZIA GAIZKI NEURTZEA

▣▣ 400 ml: ARRISKU-SENTSAZIOA MURRIZTEA

▣▣▣ 600 ml: EGITEN DENA ETA SENTITZEN DENA ALTERATZEA

### IMMUNITATE-SISTEMA AHULTZEN DU. ALKOHOLAK EZ DU COVID-19AREN AURREAN BABESTEN

### HARREMANAK HONDATU ETA EMOZIOEN KONTROLA GALTZEA ERAGIN DEZAKE

### FAMILIAN KONTSUMITZEN DENEAN ADINGABEEN GARAPENARI ERAGITEN DIO





Jendea Etxarri Aranzako plazako taberna bateko terrazan eserita.

# Ostalariak gobernuaren zain

Taberna asko 36 egun itxita egon ondoren, joan den ostegunean zabaldu zituzten ateak terrazak jartzeko. Baina establezimendu barruan zerbitzatzeko baimena noiz eta nola iritsiko den zain daude ostalari guztiak

**Maidier B.G., Alfredo A.I.** SAKANA Ostalaritza sektoreko langileak abenduaren 17a egutegian markatuta dute. Pandemiaren eragina txikitzeko hartutako neurriak biltzen dituen Foru Aginidaren indarraldia egun horretan bukatzen da. Lastailaren 22tik itxita daude ostalaritza establezimendu asko. Batzuek egun horretatik jatekoa etxera eramateko zerbitzua eskaini dute eta azaroaren 26tik terrazak irekita dituzte. Neurri horrekin bat establezimendu gehiagok egin dute, baina eguraldi iragarpena ikusita taberna itxita hobe dela pentsatzen duenik ere bada. Testuinguru horretan gremioaren iritzia jaso nahi izan dugu.

Anabel Arraizak Lakuntzako Tximonena taberna jatetxea itxita du: "ostatu bat itxia izateak galera batzuk ditu, kontuak egin ditugu eta galerak handiagoak

izan daitezke". Migel Angel Mendinuetak Lizarragako Bargazpi taberna ere itxita du: "jatekoak kanpora eramateko begira egon ginen, baina ez; langileren bat aldi baterako lan erregulazio espeditetik (ABEE) atara behar zelako. Eta jasotzen dugun laguntza "miserable" hori kenduko ligukete. Ez du merezi eta itxita dugu taberna. Eta Lizarragak daukan biztanleekin terraza ezin da aurrera atara".

Irurtzungo Pikuxar euskal txokoaren ateak itxita opatuko ditu bezeroak. Elkarteko bazkide Urko Mauduitek esan duenez,

**"LEHENGO LAGUNTZA GUTXI ZEN, ORAINGOA LOTSAGARRIA. ETA GASTUEK EZ DUTE BARKATZEN"**

"bi fronte nahiko berezi ditugu. Batetik, Pikuxar taberna dugu, eta langileak ABEEen daude. Terraza txikia dugunez ez du taberna zabaltea merezi. Denboralea pasatzeko zain gaude. Bestetik, Pikuberri elkarte berria egiteko lanak egiten ari gara. Biak garrantzitsuak dira elkarrekin orain hartu beharreko erabakietan, eta oreka mantendu behar dugu, batak bestea osatu". Mauduitek gaineratu duenez, "ezin dugu taberna nola nahi zabaldu, kaxarik ez badago gure buruaren kaltetan ariko gara".

Altsasuko Arkangoa tabernako Rafa Artetak, berriz, "itxita baino, uzten duguten gutxi hori hartzea hobe dela" baloratu zuen, eta jatekoak eramateko zerbitzatu ditu hasieratik eta terraza zabalik du. Azken hori 20 edo 24 pertsonekin betetzen zaio. "Ezin dugu gehiago zerbitzatu. Jendeak

eserita daudenak mugitzera itxaron behar du. Emaitza ekonomikoa oso pobrea da, baina edozer gauza itxita egotea baino".

Guztiak Nafarroako Gobernuak arautuko duenaren zain daude. Ostalaritza sektorea foru administrazioarekin bildu da, baina Mendinuetak azaldu duenez, "ez dute esaten %30eko, %50eko edo %70eko edukierarekin zabalduko dugun. Ezer ez dakigu". Sentipen hori berretsi du Arraizak: "16ra arte ez dugu jakiterik zein egoeratan egongo garen: ez irekitzen utziko digutenik, hau da, jendea taberna barrura sartzen dagozkion murrizketekin, eta zer eskatuko diguten hori hala izateko ere bai". Lakuntzarra kezu da administrazioak zuzenean ez dituelako informatzen, "adi gaudelako dakizkigu gauzak. Zuzenean etortzen direnak debekuak dira, horiek bai".

Taberna barruak irekitzeko baimena ematean Pikuxar ateak zabalitzen saiatuko dela aurreratu du Mauduitek. Arteta "zabaltzeko esperoan" dago, "bezeroei zerbitzu zabalagoa eta egokiagoa emateko, ez egun eman ahal diegun zerbitzu prekario eta urria, eta, bestetik, langileak ABEEtik ateratzeko".

**"JENDEA OHARTU DA OSO EGOERA ZAILEAN GAUDELA, ENPATIA HORI SENTITZEN DUGU, ESKERTU NAHI DUGU"**

## Langileak eta laguntzak

Erregulazio espeditenteak egin behar izan dituzte guztiak. Artetak azaldu duenez, sukaldeko langile bat eta zerbitzari bat ABEEtik aterako ditu, "ostiral eta larunbatetan bereziki, beharra dudalako". Baina irekierari buruzko "erabaki ofizialik" ez dagoenez, altsasuarrak "pixkanaka" hastea erabaki du. Mauduitek esan duenez, "espeditenteak ahalmena ematen digu taberna gutxieneko batzuetan mantentzeko, aurre egin ahal diogun gastu batean egoteko. Hau da, alokairua eta gastu minimo batzuk ordaintzeko".

Laguntzen inguruan galdetuta, Mendinuetak esan digu bera eta bikotekideak jasotzen dutela. "Baina dirulaguntza barregarria da; lehengoa gutxi zen baina oraingoa lotsagarria. 400 euro eskaseko laguntza ematen dizute. Eta gastuek ez dute barkatzen, dena etortzen zaizu: BEZa, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga... dena etortzen zaizu". Arraizak gaztigatu duenez, "langileek daukaten laguntza hori nik ezin dut jaso, laguntzarik gabe nago. Autonomo bezala badago laguntza bat eskatzea, baina nire kasuan, taberna eta jatetxe bezala izena emana daukat ekonomia jardueren gaineko zergan (EJZ), baina beste EJZ batean ere izena emana daukat, nik beste lan batzuk egin izan ditudalako. Eta hori niri gobernuak ez dit galarazi. Horrek esan nahi du ezin didatela ostalaritzaren laguntzarik eman, nik lan egiteko aukera dudalako, nahiz eta lanik ez izan".

Irurtzundarrari iruditzen zaio "ostalaritza nahiko gaizki tratatua" izan dela. "Batetik, enpresariei irtenbideak ematen dizkiete, espeditentea ezartzea, esaterako. Horrek langileria soldadak eta Gizarte Segurantzza ordaintzea bermatzen du. Ez dago gaizki, gutxieneko bat da. Baina alokairuaren inguruan administrazioak ez du ezer jaso. Gu saiatu gara erdia eta erdia egiten, baina horretarako ere negoziatio asko egin behar izan ditugu. Egia esan, gogorra da". Arteta dirulaguntzak jasotzeko esperoan dago. "Nire kasuan, zailtasun gehiago laguntzak baino. Dirulaguntzak jaso ahal izateko betebeharren eta eskakizunen letra txikia oso txikia da. Eta eskaerak harrigarriak dira: interesak, karga tasak, ez



dagozkigun ordainketak... Ikusgarria. Laguntza emanen dutela esaten dute ahoa zabal zabalik dutela, baina laguntza gutxi ari gara jasotzen, eta oso informazio gutxi".

### Bezeroak

Arraizak aitortu du "babes handia" izan dutela, bai lakuntzarrena baita ez direnena ere. "Ikaragarri eskertzen dugu. Zeren jendea ohartu da oso egoera zailean gaudela, enpatia hori ikusten eta sentitzen dugu eta eskertu nahi dugu, jasotzen ari garen keinuak izugarriak direlako". Lizarragatarrari denak galdetzen diote taberna noiz zabalduko duen. "Larunbat honetarako Etxarri Aranazko kintadetakoz bazkariak hartuta geneuzkan. Beste bazkari batzuk ere. Denak atzera bota ditugu. Eta ez dakigu noiz zabaldu behar dugun".

Pikuxarreko bezeroak taberna itxita dagoelako "penatuta" daude. Mauduitek azaldu duenez, elkartekideak "etorkizun hurbilera" begira daude, hau da, erakitzen ari diren elkarte eta taberna berrira: Pikuberri. "Pikuxar, ez dugu baztertuko, eta Pikuberri zabaldu bitartean Pikuxarren ahalik eta zerbitzu hoberena ematen saiatuko gara, baina erotu gabe, hurrengo pausu oso polita delako". Egoitza berriko lanak aurreikusitako bezala egiten ari dira, barruko lanak despedituta, fatxadan daude lanean, eta lizentziak eskatzen hastea pentsatzen ari dira. "Ilusio guztia jarri dugu eta nabaritzen da". Hala ere, elkartekideek "irakurketa bat egin beharko dugu. Lehen parranda asko egiten ziren, pandemiarekin orain ezin dira parrandak egin, eta orduan gure negozioa ere aldatu egin beharko dugu, garai berri hauetara egokitzeko". Pikuxar ahalik eta azkarren zabaldu nahiko lukete. Baita egoitza batetik besterako trantsizioa ahalik eta lasaiena izatea ere.

Artetak esan duenez "bezeroak oso jator daude, 12ko nota jarriko nieke. Esaten diezuna errespetatzen dute, zerbitzatu ezin diezunean ulertzen dute eta lasai-lasai doaz... Jendeak ostalaritza lagundu nahi du, eskaerak egiten dizkizu, etortzen dira... Ikusgarria izaten ari da. Ostalaritza jasaten ari den ekonomia egoera oso gogorra ari da izaten, eta eskertzekoa da".

# Udal eraikinetan CO<sup>2</sup> isurketak murriztuko dira

Udala eta liburutegia energiaz hornitzeko instalazio fotovoltaikoa jarri da, udaletxeko argiteria eta teilatuko leihoak aldatu dira, udaletxean biomasa galdara jarriko da eta eskola eta kiroldegia kanalizazio batekin lotuko dira kiroldegia gasez hornitzeko

### Maider Betelu Ganboa IRURTZUN

Irurtzongo Udalak 2030 urterako CO<sup>2</sup> isurketak %40an murriztu nahi ditu eta, horretarako, lehenbailehen hasi nahi du bere instalazioak egokitzen. Guztira sei lan egitea aurreikusi du udalak, energia burujabetza eta egungo instalazioen eraginkortasuna hobetzeko. Alkateen Itunaren barruan kokatzen diren inbertsioek 134.566,05 euroko aurrekontua dute. Aitor Larraza Carrera alkateak jakinarazi duenez, dirutza hori Irurtzongo Udalak Nafarroako Gobernuaren berraktibazioko dirulaguntzekin eta diruzaintzako gerakineko 22.037,85 euroekin osatuko dute.

### Sei lan, energia kontsumoa murrizteko helburuarekin

Larrazak azaldu duenez, lehenik udaletxearen eta liburutegiaren energia hornidura asetzeko instalazio fotovoltaikoa jarri dute. 19.04 Kwp-ko instalazio horrek urtean 22.890 kWh sortuko ditu. Jakinaenez, Irurtzongo Udalak eguzki plaken instalazioa jarria du dagoeneko frontoian. Handik Atakondoa ikastetxea elikatzen da. Bigarren instalazio fotovoltaikoaren aurrekontua 24.352 eurokoa da eta Ekisolar enpresak jarri du.

Bestalde, udaletxeko argiteria aldatu da, argiak eraginkorragoak izan daitezkeen. Egungo potentzia %70 jaitsiz, 1.950 euro aurreztuko ditu udalak. Aurrekontua 10.648 eurokoa da eta obra Erentxun muntaia elektrikoak enpresak egin du. Horrekin batera, teilatuetan dauden zortzi leiho aldatu dituzte. Larrazak azaldu duenez, "aurrekoak egurrezkoak ziren, horietako askok ez zuten ondo ixten eta bero galerak handiak zeuden". Horretara 10.781,10 euro bideratu dituzte.

Bi gasolio galdara ere begiz jota dituzte. Haren ordez udaletxean biomasa galdara jarriko dute. Larrazak azaldu duenez,

"egun udaletxean dagoen gasolio galdara behar baino handiagoa da eta haren ordez potentzia txikiagoa duen eta pelleta kontsumitzen duen galdara jarriko dugu". Lanak 40.835,06 euroko aurrekontua du. Horrekin batera, kiroldegian dagoen gasolio galdara kentzea da udalaren asmoa. Eta kiroldegia berotzeko


hura eta eskola lotuko dituen kanalizazio bat egin nahi du, kiroldegia gasez hornitzeko. 20.500 euro bideratu dituzte. Lan horiek apirilean egingen dituzte.

Azkenik, Akaborro industrialdearen argiteria publikoa aldatzen ari dira. Horrekin batera koadro elektrikoa hobetuko da. Horrela, Irurtzongo argiteria

publiko guztiak LED teknologia izanen du. 27.449,89 euroko inbertsioa da, eta horri esker urtean 16.018 kWh aurreztuko ditu Irurtzongo Udalak, hau da, kontsumoaren %75. Lanak Erentxun muntaia elektrikoak enpresak egingen ditu.

### 2021erako energia komunitatea sortu nahi dute

Larrazak gaineratu dutenez, 2021 urtean beste pauso bat eman nahi dute. "Energia komunitate bat sustatzen edo garatzen saiatuko gara, prozesu parte hartzaile baten bidez. Neurri batean, herritarrok kontsumitzen dugun eta instalazio kolektibo baten bidez sor dezakegun energiaren gainean burujabeagoak izateko ideiarekin jaioko da proiektu hori". Beste urrats bat, beraz, energia burujabetzaren bidean.



Atakondoa eskolako jolas parke berrirako egitasmoa. IRURTZUNGO UDALA

## Hasi dira eskolako jolas parkeko lanak

Irurtzundarrek parte hartze aurrekontuetan ziztuzten lau aukeren artean Atakondoa eskolako haur jolastokia hobetzea aukeratu zuten. Ikastetxeko guraso elkarteak proposatutako egitasmoa da aste honetan gauzatzen hasi dena. Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu duenez, "espazioak hezten duen ideiatik abiatuta, proiektuak jolastokiko berdegunea itzuli nahi dio

ikastetxeari, jada txertatuta dagoen landa eremuaren berezko balioa baita". Lanak Cota proiektuak egingen ditu eta haiengatik 31.974,98 euro jasoko ditu. Joko elementu finkoak Ilundaingo baserri eskolan eraikiko dituzte 8.947,95 euroren truke. Proiektuaren erredakzioarekin batera, egitasmoak, guztira 43.679,92 euroko aurrekontua du. Parte hartze aurrekontuen

poltsa 35.000 eurokoa zen eta horrekin guztia pagatzeko iristen ez denez, alkateak jakinarazi du ikastetxeko zuzendaritzak eta Guraso Elkarteak diru kopuru bat emateko prest daudela. "Azken batean, lankidetzaren proiektu baten aurrean gaude; hezkuntza esparruko elementuak sartzen ditu, eta inklusioa eta baterako jolasa sustatu nahi ditu, ingurune atsegina batean".

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN  
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA  
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /  
kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 4

**ALTSASU Gazte agenda:**  
**Bizkotxada.** 1,5 euro.  
17:30ean, Intxostiapunta gazte  
gunean.

**LAKUNTZA Pettiren kontzertua.**  
3 euro.  
19:00etan, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ Jon**  
Plazaolaren *Irabazi* gazte eta  
helduendako antzezlan.

## ZORION AGURRAK



Haitz Lazkoz Ginea  
Zorionak ederra!  
Larunbatean 8 urte  
beteko dituzu. Egun ona  
pasa eta muxu pila bat  
aitabo, Ainetz,  
lizarragakuen eta  
amiñen partes!!



19:00etan, kultur etxean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ**  
Euskal presoak, Euskal Herrira  
elkarretaratzeak.  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasukoak aske**  
elkarretaratzea.  
20:00etan, udaletxearen parean.

## LARUNBATA 5

**ALTSASU Gazte agenda:** Ping  
pong arratsaldea.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte  
gunean.

**ALTSASU Gure hautua bizitzak**  
elkarretaratze ibiltaria. LAB,  
Sortu eta Ernai.  
18:00etan, Foru plazatik lortia  
zabalgunera.

**ALTSASU 948 kultura.** Xabi  
Bandiniren eta Alberto Isabaren  
*Biba! Gertutik konfinamenduko*  
*bakarriketak* ikuskizuna.  
19:30ean, lortia kultur gunean.

## IGANDEA 6

**ALTSASU Jai arrotzei**  
*intsumisioa* herri eskolak.  
Ikasle Abertzaileak antolatuta.  
11:00etan, plazan.

**ALTSASU Euskal presoak,**  
Euskal Herrira elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

*Parasite B&W* version  
gaurkotasunezko film  
dokumentalaren emanaldia  
Ostirala 4: 19:00  
Igandea 6: 19:30

*Onward* familiarterko filmaren  
emanaldia euskaraz  
Igandea 6: 17:00

*Senti-mental* gaurkotasunezko  
filmaren emanaldia  
Osteguna 10: 19:00  
Ostirala 11: 19:00  
Igandea 13: 19:30

*Frozen II* familiarterko filmaren  
emanaldia euskaraz  
Igandea 13: 17:00

*Erlauntza* gaurkotasunezko  
filmaren emanaldia  
Osteguna 17: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO TXIKIAN

*El palacio ideal* zineforum  
filmaren emanaldia euskaraz  
Igandea 6: 19:40

*Regreso a Hope Gap* zineforum  
film dokumentalaren emanaldia  
Osteguna 10: 19:00  
Igandea 13: 19:40

*Undine* zineforum film  
dokumentalaren emanaldia  
Osteguna 17: 19:00

## ASTELEHENA 7

**ALTSASU Pentsio duinen aldeko**  
kontzentrazioa.  
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

**ALTSASU Gazte agenda:** Futbolin  
arratsaldea.  
18:00etan, Intxostiapuntan.



UTZITAKOIA

**ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranatzko Abesbatzaren 50. urteurrenaren**  
erakusketa.

Abenduaren 4, 5, 6, 7, 11, 12, 18, 19, 25 eta 26 17:00etatik 19:00etara  
eta 8an 13:00etatik 14:30era egonen da irekita. Maiza kaleko 60.  
zenbakian.

## ASTEARTEA 8

**OLAZTI 948 kultura.** *Numenak*  
familiarterko antzerkia.  
17:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Gazte agenda:** Lince  
txapelketa.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte  
gunean.

**IRURTZUN Joli Pascualenaren**  
*Incorrectas* kontzertu  
ikuskizuna.  
19:00etan kultur etxean.

**ALTSASU Suakai taldearen**  
*Luces, música, jacción!*  
ikuskizuna.  
19:00etan, lortia kultur gunean.

## ASTEAZKENA 9

**IRURTZUN, ETXARRI ARANATZ**  
ETA **ALTSASU Osasun etxea**  
*zaindu!* Nafarroako Osasun  
Plataformaren elkarretaratzeak.  
11:00etan, osasun etxearen  
aurrean.

## OSTIRALA 11

**ALTSASU Gazte agenda:** Doble  
txapelketa.  
18:00etan, Intxostiapunta.

**ARBIZU Florecica** Josefina  
Lambertoren inguruko  
dokumentala.  
18:30ean, udaletxean.

**IRURTZUN Losers** gazte eta  
helduendako antzerkia.  
20:00etan, kultur etxean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ**  
Azken ostirala: Euskal presoak,  
Euskal Herrira elkarretaratzeak.  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasukoak aske**  
azken elkarretaratzea. Bideo  
proiekzioa eta talde argazkia.  
Ondoren, plazako argazkiak  
kenduko dira, Flores ahizpen  
musikarekin lagunduta.  
20:00etan, udaletxearen parean.

## LARUNBATA 12

**ALTSASU Gazte agenda:** Dixit  
misterioa.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte  
gunean.

**LAKUNTZA Oihan Vegaren**  
*Euskaloñitis* bakarriketa.  
19:00etan, kultur etxean.

**IRURTZUN Bertso saioa.** Aizpea  
Euskara Taldeak antolatuta.  
19:30ean, kultur etxean.

C.A. OSASUNA  
VS  
R.C. CELTA

ABENDUAK 6, IGANDEA  
16:15-18:15

(IRRATIKO KONEXIOA 16:00ETAN)

EUSKALERRIA  
IRRATIAREN BIDEZ

euskalerrairratia

107.3 FM  
**beleixe**

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS

**D** DEKOVEN  
NAVARRA  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU - Tel./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikarra: 690 641 860



**IGANDEA 13**

**IRURTZUN** Euskararen eguna. Itzal magoaren *Magiazko lotura 2.0* ikuskizuna.  
17:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.

**ASTELEHENA 14**

**ALTSASU** Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.  
12:00etan, udaletxearen parean.

**ASTEAZKENA 16**

**IRURTZUN, ETXARRI ARANATZ ETA ALTSASU** Osasun etxea zaindu! Nafarroako Osasun Plataformaren elkarretaratzeak.  
11:00etan, osasun etxearen aurrean.

**SAKANA** Hezkidetzan hezi, berdintasunean bizi. *Sexualitateak 3.0: Pornoaren hezea!* Haur eta Lehen Hezkuntza. Hizlaria: Nerea Sancho Esnaola. Izena emateko: [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus). 17:00etatik 19:00etara, online.

**ALTSASU** Mikel Reparazen solasaldia: *Amerikaren arrakalak*. *Las grietas de América* liburuan oinarritua.  
19:00etan, Iortia kultur gunean.

**OSTEGUNA 17**

**SAKANA** Hezkidetzan hezi, berdintasunean bizi. *Sexualitateak 3.0: Pornografiaren kontrabalierei aurre egiteko babes neurriak eta trebetasunak*. DBH eta Batxilergoa. Hizlaria: Nerea Sancho Esnaola. Izena emateko: [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus). 17:00etatik 19:00etara, online.

**ETXARRI ARANATZ** Irakurle taldea Miren Amurizaren *Basa* liburuaren gainean ariko da.  
19:00etan, liburutegian.



OROIGARRIA

**Juan Mª Imaz Gerriko**

I. urteurrena

2019ko abenduaren 5ean hil zen 65 urte zituela

Ez agurrik, ez adiorik gero arte baizik

Zu familiye

**IRAGARKI SAILKATUAK****OHARRAK**

"Aspaze Nafarroako egokitutako bizikletak gabonetarako" kanpaina abiatu du: 45000 euro lortu nahi ditu, bost tandem bizikleta egokitu erosteko, Baztango bailaran aisialdi inklusiboa sustatzeko. Urtarrilaren 15era arte egon da aktibo kanpaina [www.retoaspace.org](http://www.retoaspace.org) webgunean. Transferentzia bidez egin dezakezu zure donazioa ES70 2100 8988 8602 0001 5021 edo BIZUM bidez ASPACE NAVARRA 00537 kodearekin.

**Banda zabalari buruzko gidaren aurkezpen hitzaldiak:** Cederna-Gara-

lurrek Nafarroako Mendialdeko toki erakundeendako eta herritarrendako banda zabalari buruzko gida bat egin du. Garalurrek gida aurkezteko lau hitzaldi antolatuta ditu, pandemia egoeragatik online izanen direnak: abenduaren 10ean, ostegunean, 09:30etik 11:00etara edo 18:00etatik 19:30era; abenduaren 15ean, asteartean, 09:30etik 11:00etara edo abenduaren 16an, asteazkenean, 18:00etatik 19:30era. Interesdunek ondorengo inprimaki horren bidez eman dezakete izena, linean: <https://forms.gle/t9vF87d1QtsTEp8J9>. Doakoak dira eta gaztelaniaz. Lorea Jamar Garalu-

reko IKT teknikariak moderatuko ditu <https://meet.jit.si/Cederna-Garalur> bidez emanen dira saioak.

**Odol emateak Altsasun:** Abenduaren 15, 16 eta 17an, 17:00atik 20:30tara, 18an 9:30atik 13:00tara.

**Etxari Aranazko Olentzeroren eta Mari Domingiren postontzia:** Haritzalko basoaren sarrerako haritz batean egonen da abenduaren 8ra arte.

**Ayuda Contenedores erakundearen material bilketa berri martxan:** Altsasuko Ayuda Contenedores Gobernu Kanpoko Erakundearen material bilketa egiten hasi da berriz. De-

netarik jasotzen dute: arropa, zapatak, eskola materiala, jostailuak, bizikletak, higiene produktuak, haur oihalak, sendaketak egiteko gazak eta bendak, mantak, ordenagailuak eta beste. Asteazkenetan, azoka egunean, goizeko 10:00etatik 13:00etara egiten dute material bilketa, Altsasuko Frontoiko Zeharbidetaren 14. zenbakiko udalaren bajearen. Poltsak ibita eraman behar dira, eta aste bete ibita mantentzen dituzte, berrogeialdian. Egun bereziki Afrikara ari dira bidaltzen hemen jasotakoak, edukiontzietan

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

**HERIOTZAK**

- **Visitacion Sola Perez**, azaroaren 27an Altsasun
- **Angel Martinez de Albeniz Martinez de Zuazo**, azaroaren 27an Altsasun
- **Francisco Javier Mendoza Madinabeitia**, azaroaren 27an Altsasun
- **Jose Maria Mazkieran Mazkieran**, azaroaren 29an Altsasun
- **Jose Ignacio Galbete Lasa**, azaroaren 29an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

**DUELA 25 URTE...****Arbizuko kiroldegiak atek zabaldu zituen**

Arbizuko Udalak kiroldegia kudeatzeko Serdeport enpresa kontratatu zuen. Jon Lazkoz arbizuarra izendatu zuen kiroldegiko gerente. Han lan egiten zuten Sebastian Intxausti eta Unai Arretzek arbizuarrak ere. Kiroldegi berriak, besteak beste, honako eskaintza izanen zuen: yoga, eskalada, kirol lehiaketa herrikoiak eta prestakuntza fisiko trinkoa. Kiroldegiak 187 milioi euroko aurrekontua izan zuen. Hura eraikitzeke Arbizuko Udalak Nafarroako Gobernuaren %67ko dirulaguntza izan zuen.

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Bi bikoez asteazkenean aukeratu zuten finaleko materiala eta nahi zutena topatu zuten saskian. ASPE

# "Biok oso argi dugu finalerdia irabazi nahi dugula"

**JULEN MARTIJA OLLAKARIZKETA PILOTARIA**

**PILOTA** Gaur, ostirala, Binakako Txapelketako finalerdia jokatu du Martijak eta Ezkurdiak Agirrerren eta Albisuren kontra. Astearteko final handia du zain biko irabazleak

**Maidar Betelu Ganboa** ETXEBERRI  
Inork gutxi pentsatuko luke 2020ko Binakako Pilota Txapelketa horren gorabeheratsua izango zenik. Martxoan finalerdietan murgilduta zegoen txapelketa COVID19ak guztia gelditu zuenean. Urrian Binakakoari berrekin zitzaion, baina epaileak galdutzat eman zien finalerdia Agirrerri eta Albisuri Baikoko pilotariak greba egin eta partidara agertu ez zirelako, eta orduan COVID gaitza jota zegoen Martija eta Ezkurdia finalerako sail-

katu zituen. Baina EAeko Auzitegi Nagusiak finala bertan behera uztea ebatzi zuen, pilotariak eta EPELe pilotaren inguruko akordio sektoriala lortu zuten, Baikokoen greba bertan behera geratu zen, eta EPELeko

**"AGIRREK ETA ALBISUK FINALERDIA JOKATZEKO AUKERA IZATEA JUSTUA IRUDITZEN ZAIT"**

Borja Osés epaileak Ezkurdia-Martijaren eta Agirre-Albisuren arteko finalerdia jokatu behar zela erabaki zuen. Kapitulu askoko foiletioa izan da Binakakoa, datozen egunetan erabakiko dena. **Binakako finalerdia jokatu duzue gaur Bilbon Ezkurdiak eta biek Agirrerren eta Albisuren kontra (22:00etan, ETB1).** Gertatu den guztiarekin txapelketa honetan kontzentratzea zaila izango da. Finalerdi bat baino lehenagoko egunak bereziak izaten dira, baina egoera ez da ohikoa, urte

honetan gauza asko gertatu dira. Arraroa izan da guztia. Orain publikorik gabe gaude jokatzeko, arraroa, baina gaurko partida oso garrantzitsua da. Mentalizatu gaude, entrenatu dugu, ongi gaude eta ea finalerdia zer moduz ateratzen zaigun.

**Justua iruditzen zaizu Agirrek eta Albisuk finalerdia jokatzeko aukera izatea?**

Bai. Greba tarteko, beraiek ez zuten gure kontrako finalerdia jokatu eta partida 22 eta 0 galdutzat ematea nire ustez ez zegoen ongi. Hortaz, laurok finalerdia jokatzeko justuena iruditzen zait. **Aurreko ostiralean ongi ikusi zintugun Bergarako partidaren. COVID-a gairitu eta gero beheraldirik nabaritu duzu?**

Asintomatikoa izan nintzen, baina etxean geldirik egon nintzen, eta hori beti nabaritzen dut. Buelatu nintzen eritimoa hartzea kosta zitzaidan. Nekatua gozago nongoen. Oraindik hobetzeko gauzak ditut, baina kantxan geroz eta hobe sentitzen ari naiz. **COVIDak jota zeundenean zure defendatzaile sutsuenetakoa izan zen Joseba. Bai hala bai, finalerdia edo finala zuk jokatu behar zenuela eta ez zuela besterik buruan, hori errepikatzen zuen.**

Josebak egun horietan nirekin izan zuen jarrera eskertzekoa da. Egutero zegoen ni animatzen, eta berak nirekin jokatu nahi zuen, hori argi zuen. Bestalde, Altunaren kontra Buruz Burukoa galdu zuenean kolpe latza hartu zuen Josebak, baina orain ongi dago, eta biok oso argi dugu ostiralean irabazi nahi dugula, finalera sailkatzeko. Kontzentratuta gaude eta oso gogotsu.

**Asteburuan galdu egin zuten Agirrek eta Albisuk, baina bikote indartsua osatzen dute.**

Albisuk, ez badu asko huts egiten, pilotari asko ematen diola bada-kigu, eta Agirre aspaldian ongi jokatzeko ari da. Bikote gogorra da, zaila izango da haiek irabaztea, baina Binakakoan guk erakutsi dugu bikote gisa elkar ongi ulertzen dugula. Hasieratik partidaren sartuta eta kontzentratuta egotea funtsezkoa izanen da.

**"PARTIDA ZAILA DUGU AURRETIK, BAINA KONTZENTRATUTA GAUDE ETA OSO GOGOTSU"**

**Gaur irabazten duen bikoteak lau egun barru final handia jokatu du. Tarte labur horrek kaltetzen zaituzte ala ez?**

Egia da denbora gutxi dagoela finalerdietatik finalera. Edozer arazo izanez gero, eskua minduta edo dena delakoa, tarte gutxi dago errekupeatzeko eta ez da egoera oso egokia. Baina txapelketa asko daude jokoan, ez dago tarterik eta jokatu beharra dago. **Finalerdian zentratuta zaude ala final hitzari ere buelta batzuk eman dizkiozu?**

Beti pentsatzen duzu finalean: ilusioa duzu hor egoteko, finaleira heltzeko, finala jokatzeko, irabazteko... Baina orain gaurko finalerdietan dugu burua. Publikorik gabe jokatu dugu, niri ez zait asko gustatzen, baina honetara ohitu beharra dugu, ez dago besterik.

**Biko irabazleak Olaizola eta Urrutikoetxea izanen ditu zain asteartean Bilbon. Nola ikusten dituzu?**

Aimar momentu onean dago; aurrean harrapatzen dituen pilota guztiak bukatzen ditu eta Urrutikoetxeak defentsa ikaragarria dauka. Oso ondo ikusten ditut, baina gu finalera iritsiz gero, gurea egiten eta txapela lortzen saiatuko gara.

**Finalera iritsi eta finala irabaziko bazenute, zure lehendabiziko txapela litzateke. Hala ere, ezingo zenuke ospakizun handirik egin... Ospakizunik ez egitea arraroa izango litzateke, baina egoera hori bizi nahiko nuke (kar, kar).**

## Ezkurdiaren sentsazio onak

Finalerdietara ongi iritsi direla adierazi du Ezkurdiak. "Sentsazio onak ditugu, fisikoki ongi gaude eta eskuak ere ongi ditugu. Urte arraroa izan da, gertakari askokoa, Buruz Buruko kolpea psikologikoki ere latza izan zen niretzat, baina ongi gaude". Finalerdietan nola jokatu behar dute, argi du arbuuzarrak: "Binakako Txapelketako hasieran aritu ginen bezala; eritimo altua ezarri eta jokoaren kontrola hartu, horiek dira gakoak". Horretarako pilota azkarrak aukeratu dituzte, "txispa dutenak".

# Israel Arbizuren podiuma Los Arcosko zirkuituan

**ATLETISMOA** Etxarriarra hirugarren sailkatu zen Nafarroako 5 km-ko Txapelketa Herrikoian. Nafarroako Emakumezkoen Txapelketan Izaskun Beunza laugarren sailkatu zen eta Gizonezkoen Txapelketan Asier Estarriaga izan zen lehen sakandarra

## Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Igandean motor hotsak ez, arnas hatsak entzun ziren Los Arcosko Nafarroako Zirkuituan. Nafarroako 5 Kilometroko Txapelketa jokatu zen, Larrabideko atletismo probak kontuan hartu gabe, martxoaren ondotik jokatu tuko lehen lasterketak. 149 korrikalarik hartu zuten parte, osasun neurri zorrotzak betez.

Nafarroako 5 km-ko Gizonezkoen Txapelketan Iker Digesek garaipena lortu zuen (15:09). Asier Estarriaga etxarriarra izan zen lehen sakandarra, 24. postuan sailkatu eta gero (16:31). Iraitz Senar lakuntzarra 29. postuan sailkatu zen (16:42) eta Mikel



Xabi Arteaga eta Israel Arbizu, lasterketako une batean. @ITZALAK\_PHOTOGRAPHY

Berdud altsasuarra 38. postuan (17:19). Gizonezkoen B mailan Unai Perez gailendu zen (16:36) eta Isidro Asurabarrena altsasuarra 22. postuan sartu zen (19:02).

## Beunza podiuma zapatzeaz

Emakumezkoen Nafarroako Txapelketan Alicia Carrera izan zen txapelduna (17:41). Izaskun Beunza olaztiarra 4. postuan sailkatu zen (18:22), podiumera igotzeko 12 segundo eskasera. Lan polita egin zuen ere Leire Estarriagak. Etxarriarra 12. postuan sailkatu zen (19:17).

## Israel Arbizu "oso kontentu"

Aurrekoekin batera, Nafarroako 5 km-ko Lasterketa Herrikoia jokatu zen. Abdelkader Algham eguneko sorpresa izan zen, lasterketa herrikoia nagusitasun handiz irabazteaz gain, eguneko denborarik onena egin zuelako (14:54). Bigarren Xabi Arteaga sailkatu zen (16:11) eta hirugarren Israel Arbizu etxarriarra (16:23). Gainontzeko sakandarrek ere lan ona egin zuten: Ivan Sobredo altsasuarra 8. postuan sailkatu zen (16:58), Sergio Garcia altsa-

suarra 11. postuan (17:13), Adur Senar lakuntzarra 13. postuan (17:24) eta Juan Luis Maiza etxarriarra 26. postuan (19:08).

Israel Arbizu azaldu du "oso kontentu" dagoela egindako lanarekin. "Hasieratik argi nuen nork irabazi behar zuen, Algham, eta horregatik nire helburua aurrean egotea edo podiumean sartzea izan zen. Xabi Arteaga nire taldekidearekin egin nuen lasterketa osoa. Lehendabiziko bueltan nik tiratu nuen eta bigarrenean berak. Talde lan ona egin genuen eta podiumean egotea lortu genuen biok" adierazi du Israeliek.

Gustura dago etxarriarra. "Denbora asko neraman lasterketa batean korrika egin gabe, eta postua baino, egin nuen denbora da ona niretako" azaldu du. Israel Arbizu ez dago federatuta, eta horregatik ezin izan zuen Nafarroako Txapelketan parte hartu, proba herrikoian aritu behar izan zuen. "Oraindik federatuta ez egotea pena izan da; Gizonezkoen Txapelketan denbora hobetu ahalko nuela uste dut, baina badago horretarako denbora" gaineratu du.

# EUSKARAREN 2020 NAZIOARTEKO EGUNA

FAMILIENDAKO ANTZERKIALDIA Azaroaren 29tik abenduaren 13ra



## MAGIAZKO LOTURA

## MAGO ITZAL

ABENDUA

13 IRURTZUN

17:30 Kultur Etxea

Sarrera doan

COVID: Araudia bermatzea kudeatuko da

# Egongelatik gertu

Nafarroako Gobernuak 948 Kultura programa antolatu du foru zubiko oporretarako. Bihar, larunbata, Xabi Bandini eta Alberto Isaba musikariek Gertutik musika ikuskizuna mustuko dute Altsasuko Iortia kultur gunean, 19:30ean

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Estreinaldia izanen da. *Gertutik* ikuskizuna publikoaren aurrean lehenengo aldiz eginen dute Xabi Bandini eta Alberto Isaba musikariek. "Aukera paregabea da lehendabiziko emanaldia lehenengo delako eta ordainezina da estreinaldi bat ikustea. Artistak urduri gaude... hori behin bakarrik gertatzen da". Behin birarekin hasten direnean xarma hori "desagertzen" dela esan du Xabi Bandinik. Bihar mustuko dute, beraz, *Gertutik* ikuskizuna, 19:30ean, Iortia kultur gunean.

*Biba!* diskaren paraleloan antzokietarako eta kultur etxeetarako prestatu duten ikuskizuna da *Gertutik*. "Konfinamendu garaian sortu zen. Albertok eta biok entseatzeko gurenean. Elkarrekin bizi gara eta momentu batean egiten ari ginena ikuskizun bihurtzea pentsatu nuen". Hortik abiatuta gidoia egin zuen eta atrezzo eta moldaketak prestatzen hasi zen. "Musika ikuskizun bat da, baina antzerki generoari keinu polit bat egiten diogu". Ikuslea etxeko egongelara eraman nahi dute. "Ikus dezan zer gertatzen den, eta zer gertatzen den, elkarrekin jotzen dugunean". Xabi Bandiniren kanta berriak eta zaharrak eginen dituzte, eta bien arteko elkarriketak ere egonen dira. "Izenburu bat pentsatzen egon nintzen eta simple baino simpleagoa zen: Gure helburua egiten duguna gertutik erakustea da, beraz, *Gertutik*".



Xabi Bandini eta Alberto Isaba musikariak. UTZITAKOIA

## Sakandarra

Etxarri Aranazko kultur etxea ongi ezagutzen du Xabi Bandinik. Bertan egin dituzte *Gertutik* ikuskizunaren entsegu orokorrak, eta Zalantza eta Egia Chica Sobresaltorekin kaleratu duen kantaren bideoklipa bertan grabatu zuen ere. Bideoklipetan Amaia Razkin biolinista etxarriarrak parte hartzen du ere. Xabi Bandinik Sakanarekiko harreman handia du. Haren etxe artistikoa dela izan daiteke: "Ez dago zalantzarik. Kerobiarekin hasi ginen. Lan talde on bat sortu genuen. Lur Larraza etxarriarra duela 15 urte inguru taldearen road managera zen, eta Xabi Bandini bezala hasi nintzenean nire ma-

nagerra izan da. Orain *Biba!*-n musikari ere bada". Sakanan mamitzen dena, "ez da beste inon ematen" aipatu du musikariak. "Ahalmen handiko jende asko dago". Olaztiko kultur etxea ere Xabi Bandiniren taldearen entsegu gunea izan da askotan.

Xabi Bandini konposatzaile bezala Kerobiarekin hasi zen, eta ikasi zuen. Kerobian kanta konposatzen zituen eta bertan "kontaktatzen" zituen istorioak bereak ziren. "Oraingo abestietan ere Kerobia dago, gu garelako". Musikariarendako Kerobiarekin hausteak ez du zentzurik: "Kerobiatik nator eta Kerobia gara. Askok gustatzen zait taldearen istorioak bezalakoak direla esa-

ten didatenean". Xabi Bandinik istorioak kontaktatzen ditu.

## Kultura

948 Kultura programaren barruan ikuskizuna Altsasun mustu ondoren, abenduaren 12an, larunbatean, Vianako kultur etxean emanaldia eginen dute ere. Nafarroako Gobernuak kultura sustatzeko antolatu duen egitarauaren barruan abenduaren 8an *Numenak* ikuskizuna izanen da Olaztiko kultur etxean, 17:00etan, eta 19:00etan, Irurtzongo kultur etxean, Demode Quarter taldearen *Incontrolables* ikuskizuna izanen da. Bestetik, abenduaren 13an. 19:00etan, Hutsun eta J.E.L. Jazz Trio taldeek kontzertua eskainiko dute Etxarri Aranazko kultur etxean.

Egoera berezi honetan "hasieratik" kulturaren sektoreak izan duen jarrera aldarrikatu du musikariak. Kultura segurua dela erakusteko lanean jarri zirela esan du, "lan handia egin du egoerara moldatzeko". Programatzaile batek artista bat kontratatzen duenean "etorkizunean" artista horrek proiektu berriak egin ahal izatea ahalbidetzen ari dela azaldu du. "Kontraturik ez badugu edo emanaldiak egiten ez baditugu, egoera latzean gaude, biziraupena da". Programa hauek "garrantzia" dutela esan du. Bestetik, egoerak bultzatuta emanaldiak *in extremis* antolatzen ari direla azaldu du. "Astetik atera dena aldatzen da, eta oso zaila izaten ari da". Ziurgabetasuna nabartzen dutela onartu du.



## De bellis antiquitatis (DBA)

De Bellis Antiquitatis edo DBA gisa ezagutzen dena, miniatuaz osatutako joko historikoa da. Kostatu zitzagun ongi jolasten ikastea bainamomentu honetan nahikotrebekak garelako esan daiteke. Izan ere, txapelketa dezente guk antolatu izan ditugu edo mugitu izan gara beste batzuetan parte hartzeko.

DBA jokoari dagokion arau-liburuxka Wargames Research Group-ek sortu zuen Ingalaterran 1990. urtean. 30 urte pasa dira DBA 1.0 atera zutenetik eta hainbat aldaketa izan ditu. Aldaketa horiek, beste joko askotan ez bezala, ez dituzte dirua irabazteko helburuarekin egin, joko hobetzeko baizik, enpresak ez baitu

miniatuarekin saltzen. DBA arau-liburuxkak 250 armadaren inguruko informazioa biltzeaz aparte, arauak ere jasotzen ditu. Oso modu egokian balioesten dugu DBA jokoak. Batetik, ez delako gauza handirik behar eta bestetik, armadak, beste joko batzuekin alderatuz, merkeak direlako.

Joko honetan, Antzina Arotik (K.A. 3000. urtetik) Erdi Arora (K.O. 1485. urtera arte) mundu mailan existitutako armada guztiak agertzen dira. Naparroi ere liburuxka horretan lekutxo bat egin digute eta egia esan, biziki pozten gara, oso garrantzitsua ikusten dugulako gure armadaren presentzia. Gainera, deigarria da zenbateraino sakontzen duen armada bakoitzari buruz ematen duen informazioan orrialde edota esaldi gutxi erabiliz. Benetan ikerketa lan handiak egin behar izan dituzte.

Bi jokalarientzako wargamea da hau. Bakoitzak, liburuxkatik armada bat aukeratu behar du eta 60cm x 60cm-ko taulan bi jokalariek bata bestearen aurka borroka egiten dute. Armada bakoitzak 12 "plaketa" dauzka. Plaketa horiek mugitzeko, erregela berezi batzuk erabiltzen dira eta borrokak burutzeko, dadoak. Helburua, aurkariaren armadari 4 plaketa "jatea" da. 4 plaketa jaten dituen lehendabiziko jokalaria irabazlea izango da. Partidak oso arinak izaten dira, gehienetan 45 minutura ez baitira iristen.

Bele Beltzak taldeak gonbita luzatu nahi dizuegu DBA ezagutu eta trebatu nahi duzuen sakkandar guztiok.

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA - AUTOMOZIOA -

**Lakuntza**

Etxera eramateko gasoleoa

Alberto Iriarte

948 576 016 - 609 421 680

TXARTEL TX 20

Zigilu eramangarriak

www.txartel.net  
948 564 002  
txartel@txartel.net

**BILTOKI**  
TABERNA • JETETKIA

Erabili musukoa eta mantendu distantziak

Cure terram desbrutata!

948 467 876 · Altsasu

kaxeta LIBURUDENDA

Gure erakusleihora iritsi da Olentzero

fotokopia@kaxeta.net

628.542.519

948.460.477

# Artea historiaren hondakinetan

Txuspo Poyo artista altsasuarrak "diasporaren eta iruditegiaren" arteko harremanak azaleratu ditu bere proiektu berrian: 'Love needs time to kill'. Erlijiodun ikastetxeetako sistema pedagogikoaren inguruan hitz egiten du

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

XVII. mendeko barrokoko bodegoi bat bailiran, ikastetxe bateko aretoaren eszenatokian hainbat hegazti eta animalia exotiko agertzen dira. Manolita Thunderssek, Mabi Revueletak eta Josesemari Morcillok animalia hauek ardura handiarekin hartu, garbitu eta ikastetxetik garraiatu dituzte. "Hau guztia modu metaforiko batean begiratu behar da. Higienizazio ideiarekin zerikusia dauka. Egiten ari direna, ikastetxe horretan erakusten ari direna, mapak, espazioak... iruditegiaren parte dira". Txuspo Poyoren proiektu berria iruditegitik ikusi behar da. Proiektuaren ikus entzunezkoa Iortia kultur gunean aurkeztu zuten, nahiz eta artista ezin izan zen egon koronabirusagatik ezarritako neurriengatik ezin zelako Altsasura heldu. Gainera, Nafarroako Museoak lana erosi du.

*Love needs time to kill* edo Maitasunak erahiltzeko denbora behar du proiektuak denborarekin desagertuz joan diren erlijiodun seminarioei eta barnetegiei buruz hitz egiten du, baina gaur egun iruditegi kolektiboan jarraitzen dutenak. "Sistema pedagogiko hauetan misiotatik ekartzen zituzten herbarioak eta disekatutako animalia exotikoak zeuden". Ikastetxe erlijioduneko zonaldearen hezkuntzaren eta identitatearen parte izan dira, eta diasporaren eta iruditegiaren

arteko harremana ezartzen dute: "Haurrak barnetegian urte osoan bizi ziren, erreferente gutxi zituzten eta disekatutako animalia hauek ikusi zituzten. Inpaktua oso handia zen"

## Iragana eta etorkizuna

Iraganeko zerbait dirudi, "baina interesgarriena da gaur egun barnetegietan hondakinak gelditzen direla". Hortaz, artistak gogoratu du ikastetxe hauetan oraindik ere bilduma "izugarriak" gelditzen direla; haietako batean bale bat dagoela esan du. Proiektuak ere etorkizunera begiratzen du: "Nafarroako Unibertsitatea natur zientzien museo handi bat egiten ari da eta Lekarozko kaputxinoetan zegoen bildumaren zati bat erakutsiko du". Kaputxinoek ere Altsasun ikastetxea zuten. Filmaren zati bat, hain zuzen, Altsasuko seminarioan grabatu zuten.

Baina ez da film bat bakarrik, proiektu oso bat da. Besteak beste, argitalpen bat lantzen ari da orain. "Proiektu bat lantzen duzunean hainbat modutan egikatzten duzu. Are gehiago, ez duzu inoiz bukatzen". Artistak azaldu duenez,

## "PROIEKTU BAT LANTZEN DUZUNEAN MODU ASKOTAN EGIKATZEN DUZU"

TXUSPO POYO

lehenengo ikerketan bat dago, "eta horri nola ematen diozu forma? Nire kasuan ikus entzunezkoa asko erabiltzen dut, baina argitalpenak egiten ditut ere, objektuak...". Objektu horiek ondoren erakusketaren display-aren edo gainlaren parte izanen dira.

Proiektua animaliekiko lehenengo harremanarekin hasten da. "Animalia hauek ahaztuta gelditu dira, eta historia historiaren detrituekin eraikitzen da, Walter Benjaminek esan zuen bezala". Abandonatutako hondakin hauek sistema pedagogiko jakin baten parte izan dira: hainbat erakusleihotetan hegazkin eta animalia exotikoak agertzen dira.

"Diaspoararen erlazio honek postkolonialarekin zerikusia dauka; Black Live Matter mugimendurekin mahaira itzuli den gaia. Sufritu dutena kolonialismotik dator: esklabotza, arrazismoa... eta misioak". Txuspo Poyok azaldu duenez, mugimendu honen lehenengo ekimenetako bat lehenengo misiolariaren eskultura eraistea izan zen. "Debatea ez da bakarrik hezkuntza mailan, pentsarazteko alde historiko bat ere badu". Historiaren arteak dagoeneko arte postkoloniala ikertu duela azaldu du artistak, eta lan honekin hasi zenean alderdi hori ikusi



'Love needs time to kill' proiektuaren irudi bat. VEGAP

zuen eta interesgarria iruditu zitaion. Bestetik, proiektu honek ere zentro hauen errebisioa egin nahi du. Hezkuntza publikoaren eta kontzertatuaren arteko eztabaida pizteko aukera ematen du lanak ere. Kontzertatua erlijiodunen eskuetan egon da "betidanik" eta publikoa, aldiz, "zauritua" egon dela esan du Txuspo Poyok. Pentsarazteko gaia kaleratu nahi du.

Artistak "bertan" dauden gauzen errebisioa egiten du. Gauza batek beste batengana eramaten du. "Aurreko proiektuak, *Izaro*, *Izaro* irlaren inguruan hitz egiten zuen, eta irlaren biztanle batzuk frantziskarrak izan ziren. Ni ez naiz erlijioduna, baina gure inguruan presentzia handia izan dute beti". Gai hauek berraztertu behar direla dio, alderdi poli-

tiko eta sozialaren parte direlako. "Nik ez dut fikzioarekin lan egiten". Haren lanetan fikzioa agertzen den arren, "errealitatearekin" lan egiten du Txuspo Poyok. "Gertaera txikiekin lan egiten dut, garrantzia gutxikoak izan direnak, baina haritik tiraka hasten zara eta gure bizitzarekin dituzten harremanak agertzen dira". Hasten dituen proiektu guztiak ez dira amaierara iristen, eta beste batzuk handitzen hasten dira *Love needs time to kill* proiektuarekin gertatu den bezala. Mugak zeharkatu ditu, "ez delako Altsasun bakarrik gertatu. Nafarroan, Euskal Herrian, Espainian eta European gertatu da ere". Erlijiodun sistema pedagogiko guztietan gertatu dela esan du. Orain, Txuspo Poyok ikerketarekin jarraitzeko Romara joateko beka bat jaso du. "Bertan daudelako honen inguruko dokumentu gehienak".



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



# "Musika urbanoa, euskalduna eta feminista"

Anne Rodriguez Kintana olaztiarrak aktore, abeslari eta pianistatzat jotzen du bere burua.. Proiektu berri bat hasi du orain: AnneKdotas

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

## 1 Nor da AnneKdotas?

AnneKdotas proiektu bat da non musika berria, urbanoa, Latinoamerikatik iristen zai-guna eta egunero irratietan entzuten duguna sustatu nahi dudana; baina euskalduna eta feminista.

## 2 Zuk egiten dituzu abestiak?

Bai. Normalean irratian entzun eta asko gustatzen zaidan abesti bat hartzen dut erreferentziatzat. Musika ordenagailuz egiten dut, eta batera da gehien kostatzen zaidana. Behin oinarri bat dudanean letrarekin hasten naiz.

## 3 Beraz, musika ordenagailuz egiten duzu? Zaila da?

Ez da hain zaila. Baina, aldi berean, ez da hain erraza. Programak erabiltzen jakin behar duzu. Batzuetan, abesti bat egun batean sortzen dut eta beste baterako bi aste behar ditut. Programa erabiltzen ikasteko orduak sartu behar dira.

## 4 Aurretik musika ikasketak egin dituzu?

Sei urterekin pianoa jotzen ikasten hasi nintzen. Batxilergoa amaitzerakoan, Iruñetik Gastei-



Anne Rodriguez Kintana aktorea, abeslaria eta pianista. UTZITAKOA

zera joan nintzen eta piano klaseak utzi nituen. Gainera, pianoa ezin nuen eraman eta teklatura erosi nuen edozein tokitan nengoela pianoa jotzeko aukera izateko. Orduan, elektronikaren munduan hasi nintzen. Eta elektronikaren mundua oso handia da. Azkenean, bien nahasketa

egiten dut. Abestietan pianoa sartzen saiatzen naiz beti.

## 5 Noiz hasi zinen proiektu honenkin?

Hasiera batean txantxa bat izan zen. *Kalamarmen* atera nuen, duela hiru urte inguru, ez zegoen reggaetoia euskaraz.

Orain badira talde batzuk, baina duela gutxi atera dira. Orduan, euskaraz zerbait egin behar genuela pentsatu genuen. Gauza bat euskaraz esan, beste ingelesez... baina barre batzuk egiteko. Dirudienez jendea gustatu zitzaion. Jendeak serio hartu zuen. Reggae-reggaetoia bat da, eta nire lehenengo abestia estilo horretan izan zen; horrelako oinarri bat erabiltzen nuela. Horretaz bizi nahi nuela pentsatu nuen. Hau egitea gustatzen zait. Iaz AnneKdotasekin aurrera egitea pentsatu nuen. Lehenengo konfinamenduaren aurretik Gasteizen nire lehenengo kontzertua adostu nuen.

## 6 Zenbat abesti dituzu?

Sei nireak, eta *Aurrez aurre*, orain atera berri dudanarekin, zazpi. Gero bi bertsio egin ditut ere: Mala Rodriguezen abesti batena eta Nati Pelusarena.

## 7 Diskoa grabatzea pentsatu duzu?

Momentuz, abestiak plataforma digitaletara igotzen ditut: Youtube, Spotify, Soundcloud... Baina ez dut diskoa grabatzea pentsatu. Gaur egun ohikoa da singleak edo abestiak ateratzea. Oraindik badago jendea esaten duena formatu fisikoa izatea gustatzen zaiola. Baina gehienek, batez ere gazteek, abestiak banan-banan entzuten dituzte. Artistekin kolaborazioak ere egiten ditut. Altsasuko mutil batekin, Dave Baserekin, abesti bat egin dut Techno-House estiloan, euskaraz. Oso polita da.

## 8 Pixkanaka ibilbidea egiten ari zara. Nola ikusten duzu etorkizuna?

Justu-justu ikusten dugu datorren urtea... Ez dakit. Momentuz, datorren astean *Aurrez aurre* abestiaren bideoklipa grabatuko dugu. Talde ona aurkitu dut. Gaur egun, bideoklipak garrantzitsuak dira. Abestiaren %50 bideoklipa da eta beste erdia abestia. Bideoklipik gabe seguru-erik ikusiko zintuztenen erdiak ikusiko zaituzte.

## 9 Lehenengo abestiak publikatzean lotsa izan zenuen?

Hasieran ez zen zerbait serioa... baina gero gertatu zait abesti horrekin lotsatzea. Serio hartuko nuela pentsatu nuen eta, atzera begiratzean, hori nire aurkezpena da? Txantxa bat izan zen, oso barregarria... baina orain hori zara zu? Ni ez naiz, broma bat da! Orain pixka bat urrunduko behar naiz. Hasieran lotsa ematen zidan eta sare sozialetan elkarbanatzea izugarri kostatzen zitzaidan. Orain poliki-poliki ari naiz elkarbanatzen.

## 10 Burning Rock Songs proiektuaren parte ere bazara. Zer da?

Ion Ruizek eta biok egin genuen proiektu bat da. Berak gitarrak jotzen du eta abestien bertsioak egiten zituen. Ahotsik gabe. Grabatu zituen eta ordenagailuan jasotzen zituen. Nik esan nion horrekin zerbait egin behar genuela, eta karaoke kanal bat sortu genuen.

## 11 Aktorea zara ere. Ba al duzu proiektuaren bat?

Kontzertuak zerbait gehiago izatea nahiko nuke, eta bakarrizketaren bat prestatzea ere nahiko nuke, antzerkia ere egotea. Bestela, Gasteizen antzezlan bat egiten ari naiz, feminismoaren inguruan.

# ERAMAN ZURE PRODUKTUAK EDONORA

## GUK BEHARREZKO DUZUN GUZTIA PRESTATUKO DIZUGU

### EDALONTZIAK, POLTSAK, ONTZIAK, KUTXAK...



DISEINU GRAFIKOA  
WEB DISEINUA  
KOMUNIKAZIOA

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE  
619 821 436 · 948 564 275 · Info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Altsasu

